

2012 · UNIBERTSITATERA SARTZEKO PROBA

# Latina II

- BATXILERGOA
- LANBIDE HEZIKETA
- GOI MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK

Azterketa

Kalifikazio eta zuzenketa irizpideak



**EUSKAMPUS**

Nazioarteko Bikaintasun Campus  
Campus de Excelencia Internacional

en la red de



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

***Azterketa honek bi aukera ditu. Haietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.***

*Azterketa honek parte hauek ditu:*

- Testuaren itzulpena: 0-5 puntu.
- 1. galdera: esaldi baten analisi sintaktikoa: 0-1 puntu.
- 2. galdera: hiru hitzen analisi morfoloikoa: 0-1 puntu.
- 3. galdera: lexikoa eta fonetika: 0-1 puntu.
- 4. galdera: latin-literatura: 0-1 puntu.
- 5. galdera: Erromaren ondarearen iraupena. Adierazitako obra irakurri izana frogatzea (0-0,5 puntu), eta gaur egun indarrean dagoen latinezko aforismo juridiko bat itzultzea edo/eta iruzkintzea (0-0,5 puntu).

*Hiztegia erabil daiteke.*

***Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

*Este examen consta de las siguientes partes:*

- Traducción del texto, que se calificará de 0 a 5 puntos.
- Cuestión 1ª: análisis sintáctico de una frase: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 2ª: análisis morfológico de tres palabras: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 3ª: léxico y fonética: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 4ª: Literatura latina: de 0 a 1 punto.
- Cuestión 5ª: Pervivencia del legado de Roma. Demostración de haber leído la obra señalada (de 0 a 0,50 puntos) y traducción o/y breve comentario de un aforismo jurídico latino vigente en la actualidad (de 0 a 0,50 puntos).

*Se permitirá el uso de diccionario.*

## A AUKERA

*Salustiok defendatzen du balio moralek ematen dituztela ohorea eta noblezia, eta dio nobleetariko asko, harropuzturik, noblezia eta ohore mota hori arbuatuko balute bezala bizi direla.*

Ex virtute nobilitas gignitur. Illi<sup>1)</sup> invident honori<sup>2)</sup> meo, ergo invideant labori, innocentiae, periculis etiam meis quoniam per haec<sup>3)</sup> honorem cepi. Verum<sup>4)</sup> homines corrupti superbia vivunt ita quasi<sup>5)</sup> vestros honores contemnant; honores quaerunt ita quasi<sup>5)</sup> honeste vixerint<sup>6)</sup>. (Sal., Bel. lug., 85, 19)

### Oharrak

- 1) *Illi*: erromatar nobleak, senatoreen gizarte-klasekoak.
- 2) *Honori*: "invidere" aditzak eskatzen duen datiboa. Hurrengo "invideant" aditzak ere datiboak eskatzen ditu.
- 3) *Haec*: "haec" izenordainak (akus. neutro plurala) lehenago aipatutakoari egiten dio erreferentzia.
- 4) *Verum*: juntag. adbersatiboa (= baina).
- 5) *Ita quasi*: baldintzazko konparazio-lokuzioa (= ba-... bezala).
- 6) *Vixerint*: "vivo, vixi, victum" aditzetik.

### Galderak

1. Itzuli testua (hiztegia erabiliz) 5 puntu.
2. Egin "*Invideant... honorem cepi*" esaldiaren analisi sintaktikoa 1 puntu.
3. Egin *virtute*, *corrupti* eta *quaerunt* hitzen analisi morfologikoa 1 puntu.
4. Erantzun bi galdera hauetako bati bakarrik: 1 puntu.
  - a) Adierazi zein diren latinezko *tempus, -oris* eta *mulier, -eris* terminoekin zerikusia duten gaztelaniatzko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
  - b) Adierazi euskarazko zer hitz ezagutzen dituzun latinezko *certus, -a, -um* eta *pluma, -ae* terminoekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.
5. Lirika latindarra: Katulo. 1 puntu.
6. Erantzun a) galderari eta b) galderari.
  - a) Zer iruditu zaizu Terentzioren *Eunukoa* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, frogatzeko obra irakurri duzula. 0,5 puntu.
  - b) Itzuli latin juridikoaren aforismo edo esamolde hau, edo/eta egin ezazu hari buruzko iruzkin labur bat: "*Facta non praesumuntur sed probantur*". 0,5 puntu.

## B AUKERA

*Julio Zesarrek opariak eginez lortu nahi zuen probintzien adiskidetasuna.*

Nec minore studio<sup>1)</sup> provincias per terrarum orbem alliciebat, aliis captivorum milia dono offerens, aliis citra auctoritatem<sup>2)</sup> senatus, quotienscumque vellent<sup>3)</sup>, auxilia submittens. Et, cum potentissimas urbes, quae in Italia continebantur, praecipuis operibus exornaret, attoniti erant omnes. (Suetonio, Divus Iulius, 28,11-16 )

### Oharrak

- 1) *Studium,ii* = ahalegina, interesa.
- 2) *Citra auctoritatem*: citra, preposizioa (=baimenik gabe).
- 3) *Vellent*: “volo,vis,velle, volui” aditzetik

### Galderak

1. Itzuli testua (hiztegia erabiliz) 5 puntu.
2. Egin “*Et, cum... omnes*” esaldiaren analisi sintaktikoa 1 puntu.
3. Egin *orbem*, *aliis* eta *exornaret* hitzen analisi morfologikoa. 1 puntu.
4. Erantzun bi galdera hauetako bati bakarrik: 1 puntu.
  - a) Adierazi zein diren latinezko *strictus,-a,-um* eta *tegula,-ae* terminoekin zerikusia duten gaztelaniako terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
  - b) Adierazi euskarazko zer hitz ezagutzen dituzun latinezko *viridis,-e* eta *crux,-cis* terminoekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.
5. Lirika latindarra: Katulo. 1 puntu.
6. Erantzun a) galderari eta b) galderari.
  - a) Zer iruditu zaizu Terentzioren *Eunukoa* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, frogatzeko obra irakurri duzula. 0,5 puntu.
  - b) Itzuli latin juridikoaren aforismo edo esamolde hau, edo/eta egin ezazu hari buruzko iruzkin labur bat: “*Facta non praesumuntur sed probantur*”. 0,5 puntu.



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### LATINA II

- 1) Latinezko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzea, hiztegia erabiliz.
  - Gehienez, 5 puntu.
  - Hauek balioetsiko dira: latinezko testuaren edukia ulertzea, kontzeptuak xedehizkuntzara itzultzeko gaitasuna eta latinaren gramatika ezagutzea — itzulpenak hori erakustea—.
- 2) Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoa.
  - Gehienez, 1 puntu.
  - Esaldi osoaren egitura sintaktikoari buruzko eta esaldiko elementu bakoitzaren sintaxiari buruzko analisisia egin behar da.
- 3) Adierazitako hitzen analisi morfologikoa
  - Gehienez, 1 puntu.
  - Kasuaren arabera, izen-jokoaren (kasua, numeroa, generoa) edo aditz-jokoaren (boza, modua, denbora, pertsona eta numeroa) hitz mota eta bereizgarriak zehaztu behar dira.
- 4) Lexikoari eta fonetikari buruzko galdera. Lexiko latindarraren gaztelaniarako edo euskararako bilakaeraren adibideak.
  - Gehienez, 1 puntu.
  - Aipatutako hitz kopurua eta, batez ere, kasu bakoitzari dagozkion lege fonetikoaren azalpena balioetsiko dira.
- 5) Literatura latindarraren historiari buruzko galdera.
  - Gehienez, 1 puntu.
  - Galderako literatura-generoa definitu behar du ikasleak, eta egile horri (edo horiei) buruz dakiena azaldu; batez ere, literatura-genero horri dagozkion obrei buruz jardun behar du.
- 6) a) Itzulitako obra latindar baten irakurketa.
  - Gehienez, 0,50 puntu.
  - Galderaren helburu bakarra da jakitea ea ikasleak ikasturte honetarako adierazitako obra (Terenzioren “El Eunuco”) irakurri duen. Baina, horretarako, obra benetan irakurri duen ala ez frogatzeko, behar adina datu eta xehetasun eman behar ditu ikasleak.b) Erromaren ondarearen iraupena zuzenbidearen arloan: latin juridikoaren aforismoak eta esamoldeak.
  - Gehienez, 0,50 puntu.
  - Gaur egun indarrean jarraitzen duen latin juridikoaren aforismo edo esamolde baten itzulpena edo/eta iruzkin laburra egitea eskatzen da.